

Batzuetan irabazten da, eta beti ikasten da: GetxoMeeting, martxoaren 23an

Saioaren helburua elkarrengandik ikastea izan zen; horretarako, enpresa-ibilbideari dagokionez bakoitzak zituen bizipenak kontatu zituen, gainerakoak inspiratze aldera.

Benetako kasuak kontatu genituen bikoteka, eta artikulu honetan ateratako lezio gakoak partekatuko ditugu.

Zer egin genuen?

Bizipen positibo bat kontatu, ondo joan den zerbait
Txarto joan zelako edo, gutxienez, espero bezala ez joateagatik ikasteko balio izan digun zerbait kontatu.

Bikoteka entzun ostean, hizlari bakoitzak entzundako istorioetatik atera zituen lezioak idatzi zituen, ondoren, esaldi inspiratzaileen bidez edo kontuan izan beharreko aholkuen bitartez, parte-hartzaile guztiekin partekatzeko xedearekin.

Ziur asko esaldi hauetako askorekin identifikatuko duzu zeure burua, eta espero dugu beste batzuk inspirazio gisa balio izatea zure negozioak aurrera egiteko gakoak behar dituen uneetan. Kategorietan ordenatu ditugu, irakurtzeko errazago izan daitezten.

GURE ENPRESETAN IZANDAKO ESPERIENTZIETAN OINARRITUTAKO IRAKASPENAK

Getxo Meetingeko parte-hartzaileek ateratako gakoak

Enpresari eta ekintzailetzaren nahiz sendotzearen gaineko prozesuari buruz

- Ekintzaileatzaren oinarria hauxe da: amets handiak egin eta txikitik hastea.
- Susmoez fidatu; hori ikasten den zerbait da.
- Funtsa erreskatatzearen garrantzia.
- Gertatzen den dena komeni da, hazten ikasten baitugu.
- Inoiz ez da berandu berriz ere hasteko.
- Publizitatea behar duen enpresaren irudi osoa sortu eta, hunkitzen duen modu baten bitartez, bere errealitatea zabaltzeko estrategia.

Jarrera

- Aukeratzen duzula sentitu!
- Ondo jarduteak bideak irekiko dizkizu.
- Zure lanaren balioa azpimarratzeak duen garrantzia.
- Ez zaio aukera bakarrari heldu behar.
- Ez zara hartara egin behar.
- Burua suerta daitezkeen aukeretara zabalik izan.
- Egoera negatiboa? Erantzun positiboa.
- Pazientzia izan behar da emaitzak ikusteko orduan.
- Etorkizuna ez dago inon idatzita.
- Esfortzuak beti dauka ordaina.
- Beti ikus dezakegu arazoaren sorburua zein den eta horretarako konponbidea bilatu.

- Ezer ez da dirudiena.
- Zailtasunen aurrean ez da amore eman behar.

Aliantzak

- Nahitaezkoa da sinergiak ateratzeko espazio osasungarriak aurkitzea.
- Ondo aukera itzazu zure bidelagunak.
- Noren kide bihurtzen naizen jakitearen garrantzia.
- Galdetu zeure buruari norengan daukazu konfiantza.
- Badaude gehitu beharrean biderkatu egiten duten pertsonak.
- Elkarlanean aritzean, ikusi behar da ea lehen begi-kolpeko maitasunik edo desamodiorik dagoen.
- Jendea ezagutzeak ateak irekitzen ditu proiektu berrietan ekiten jarraitzeko.
- Zerbitzu osoagoa emateko xedearekin, profesionalen sare batekin sailak betetzeak duen garrantzia.

Bezeroak

- Hasieran bezeroari denbora eskaintzeak ondoren denbora aurrezte eta lana eraginkorragoa izatea eragingo du.
- Gustatzen zaizkidan bezeroak topatzea pozten zaitu eta lana errazten du. Iragaz itzazu. Eta horiek aurkitzen ikasi.
- Aurretiaz zenbait gastu kobratzeak arriskuak murrizten ditu.

Asertibitatea

- Ezetz badiozu, beste aukera bat eskain dezakezu.
- EZETZ esateren garrantzia.

Proiektuak, zerbitzuak, produktua

- Gaia ezagutzen ez duzun lanei dagokienez, horiek gauzatzea prozesu motela eta gogaikarria da. Ikasi orduko... errazagoa da.
- Gauzak ondo egiten direnean, jendeak ikusten zaitu.
- Kanean bertan lokal bat izateak zerbitzuen eskaintza handitzeko askatasuna mugatu eta baldintzatzen du.

Getxo Meeting bakoitza desberdina da, pertsona desberdinek osatzen baitute: beti dago pertsona berriren bat, baita errepikatzen dutenak ere. Horrez gain, jorratzen diren gaiak bestelakoak dira beti, horiek guztiak ekintzaileek dituzten benetako premietara zuzenduta daude.

Hurrengo saioa: apirilaren 6an.

Negozio propio bat baldin badaukazu, parte hartzera anima zaitetz eta izena eman ezazu doan. kontaktu berriak egingo dituzu eta indar berrituta irtengo zara.

Saioak bi ostegunetik behin egingo dira, 12:00etatik 14:00etara, Getxo Elkartegian (Ogoño kalea, 1, 48930, Getxo).

Doakoak izango dira, eta beharrezkoa izango da aldeztatik Getxolanen izena ematea, 94 466 01 40 telefono-zenbakiaren edo getxolan@getxo.eus helbide elektronikoaren bitartez.